



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2023/07/20an EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 20/07/2023.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Xabier Uriarte Iñurrategi
Irati Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaitoa Aguiriano
Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sajeras
Puri Regidor Varela
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2023ko uztailaren 20an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da ezohiko Udalbatza gai zerrendan zehaztutako gaietara buruz hitz egiteko. Ez da etorri Edorta Barandiaran García.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 20 de julio de 2023, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Edorta Barandiaran García.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAADPJA1.xUAK>

2023/07/20
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria

1.- ALEGAZIOAK, ITSARAZ PARKE EOLIKOA (60.4 MW) BARNE HARTZEN DUEN PEol-852 PROIEKTUAREN AURRETIAZKO ADMINISTRAZIO BAIMENAREN (AAB) ETA INGURUMEN INPAKTUAREN ADIERAZPENAREN (IIA) ESKAERA JENDAURREAN JARTZEKO IZAPIDEAREN BARRUAN.

Lurraldearen eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzak, bertaratutako EH BILDUko 6 zinegotziek alde bozkatuta eta bertaratutako EAJ/PNVko 4 zinegotziak abstenituta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2023ko maiatzaren 22ko BOEn argitaratu zen Gobernuak Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian dituen ordezkariordetzetako Industria eta Energiako Bulegoen eta Arlo Funtzionalen iragarkia. Horren bidez, jendaurrean jarri zen PEol-852 proiektuaren (Itsaraz parke eolikoa barne hartzen duena, 60.4 MW) aurretizko administrazio-baimenaren (AAB) eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren (IIA) eskaera. Horren aurrean, honako alegazio hauek egiten dira:

ALEGAZIOAK:

1.- Proiektatutako zentral eolikoak inpaktu larria izango luke azpiegitura berriak eraiki nahi diren eremuetako biztanleengan. Bereziki kaltegarria izango litzateke Aramaion, Leintz Gatzagan, Eskoriatzan eta Aretxabaletan, hau da, Debagoiengan, bertako paisaia degradatu egingo bailitzateke. Izan ere, Arriola, Arexola, Uribarri, Altzaga, Azkoaga, Zabola, Barajuen, Untzila, Suña, Marin, Zarimutz, Mazmela eta Apotzagatik gertu jarri nahi diren 200 metroko garaiera duten 8 erroten eraginaz gain, altzairuzko dorre erraldoietatik esekita 15,34 km-ko luzera izango duen goi tentsioko aireko ebakuazio-lineak ere eragin handia izango luke, eta baita San Adrian ermita inguruko Set Itsaraz azpiestazio elektrikoak ere.

Sustatzailearen ingurumen-txostenak behar bezala ebaluatzen ez baditu ere, garrantzitsua da inpaktu akustikoa eta Flicker efektua (errotako besoek sortutako itzal mugikorrak) azpimarratzea, oso kaltegarriak baitira herritarren osasunerako.

2.- Zentral eolikoa "korridore ekologiko" batean instalatu nahi da, Urkiolako, Aizkorri-Aratzeko eta Zadorrako urtegiatako KBEen (kontserbazio bereziko eremuen) artean. Parkeak ondorio negatibo larriak izango ditu KBE horietako funtsezko elementuetan, konektagarritasunaren galera, habitaten zatiketa eta biodibertsitatearen galera oso handiak baitira.

3.- Sustatzaileak egindako txostenaren "V.3.2.7 Faunaren gaineko ondorioak" atalean (390-1 orrialdeak) onartzen du eroanbide-kableekin eta aerosorgailuekin talka egitearen eta elektrokutatzearen ondorioz zenbait hegazti hilko direla. Hala ere, kuantifikazio eta arrazoiketa gehiagorik gabe, eragin hori "NEURRIZKOTZAT" jotzen da. Balorazio hori nabarmen eskasa da kontuan hartzen bada parkeko instalazio-eremuan, besteak beste, miru errealak, sai zuriak, ugatza, arrano arrantzalea -denak ere espezie babestuak- eta kiroptero espezie ugari (saguzarrak) bizi direla.

2023/07/20
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria

Gainera, Itsaraz parke eolikoa bere isurialde guztietatik inguratzen duen eremu guztia hegazti migratzaileen igarobide-korridorea da "pase eta kontrapase" garaietan. Hesi-efektu horrek Gipuzkoa eta Araba urtero zeharkatzen dituzten ehunka mila hegaztiri eragingo lieke, Europa mailan hegaztien migrazio-bide onenetako batean baitago. Kontuan izan behar da, halaber, Itsaraz parkearen eraginpean dagoen eremuan, udaberrian eta udan hainbat hegazti-espeziek habia egin eta bertan bizi direla.

4.- Gauez, berriz, haize-sorgailuek izango luketen balizamendu zuri eta aldizkakoak, egunean zehar eragindakoa baino inpaktu bisual handiagoa sortuko luke; argi-kutsadura handia sortuz. Argiztapen horrek intsektuak erakarriko lituzke eta, ondorioz, gaueko hegazti eta kiroptero gehiagok egingo lukete talka aerosorgailuekin.

5.- Floraren gaineko eragina handia izango litzateke, eta Europar Batasuneko edo/eta lehentasunezko intereseko habitatei eragingo lieke: habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbatzeari buruzko Europako 92-43-EEE Zuzentaraua.

6.- Sustatzailearen ingurumen-inpaktuaren azterketak ez ditu Eskoriatzako udalerriko paisaia eragingo dituen ondorio IRAUNKORRAK jasotzen. Eskoriatzan jarriko duten aerosorgailua, Apotzaga elizatetik km 1era dago. Baina aerosorgailuen tamaina itzela (mastak 115m eta besoen puntara 201m) eta distantzia kontuan hartzen badira, inpaktu bisuala oso handia izango da, eta haize-errota elizate gainean dagoela emango du.

Azpimarratu behar da, Eskoriatzan jarri nahi den aerosorgailuak itsas mailatik 572 m inguruko kotan izango duela oinarria, eta 200 m-ko altuera izango duela.

7.- Statkraftek hala aldarrikatzen badu ere, instalazio horiek ez du bertako jendearentzako inolako enplegurik sortuko. Gainera, landa-eremua eta herrigune txikiak pobretzea ekarriko luke, lurrak eta eraikinak devaluatzen baitira. Zentral eolikoetatik gertu dauden herrietako biztanleen bizi-kalitateak eragin larria izango du. Instalazioak egiteko, bai dorreak bai ebakuazio-lineak, zuhaitz ugari moztu beharko dira, ezingo da berririk landatu eta aldameneko lurren erabilerari ere eragingo dio.

8.- Jabetza pribatuei eragiteaz gain, udal-mendi eta lursailen pribatizazioa ekarriko luke Norvegiako estatuaren jabetzakoa den Statkraft enpresaren alde, aldi baterako gutxienez. Norvegiako justiziak jada Statkraft enpresa kondenatu du Fosen Vind parke eolikoa eraikitzeagatik, eta hala ere, enpresak ez du bete parke hori eraisteko epaia eta parkea ustiatzen jarraitzen du.

9.- Aerosorgailuen errotoreek olio kopuru handiak behar dituzte, eta maiz izaten diren olio ihesek lurpea eta lurpeko urak kutsatzea ekarriko lukete.

10.- Sustatzailearen ingurumen-inpaktuari buruzko txostenak ziurtatzen du, egun dauden pistak eta bideak aprobetxatuko direla zentrala eraikitzeko. Baina hori ezinezkoa da teknikoki, inguruneke orografia malkartsua dela-eta ibilgailu astunak ezin baitira egungo

bide-saretik ibili. Bide-sare honek behar dituen egokitzapenak lur eta harri tonak mugitzea ekarriko luke, eta ondorioz lurra trinkotu eta higatu egingo litzateke.

11.- Bereziki larria, instalazio osagarria delako, 13. biderako emandako irtenbidea da. 360 m-ko luzerako bidea egiteko, paraleloan dauden bi horma eraiki behar dira. Beraien artean 42 m-ko lur tartea egongo da eta horma bakoitzaren gainean, 12m-ko garaiera duen lur-ezponda bat.

Jarduketa horretarako behar den lur-betelana 250.000 m³ lur ingurukoa da. Egokitzapen horrek lurra trinkotzea eta higatzea eragingo luke.

Hori, mendilerro baten gainean eraikitako benetako presa da. Eta, hori guztiori azken aerosorgailuaren kokapenera sartu ahal izateko.

Horma horrek sortutako eragina onartezina da ikuspuntu orotik, eta Eskoriatzan dagoen aerosorgailu hori eraikitzeari uko egitea edo bide horren trazatua aldatzea ekarri beharko luke.

Alde horretatik, Energia Berriztagarrien Lurraldearen Arloko Plana aplikagarria ez den arren, oraindik indarrean ez dagoelako, eta aplikagarria ez izan dokumentu horren xedapen iragankorraren arabera, uste dugu proiektuak berak aintzat hartu beharko lituzkeela, logika hutsez, plan horren zehaztapenak eta jarraibideak.

Bertan, kokapen horretan proiektatutako lineak ez du proposatzen Eskoriatzaraino luzatzerik.

*Beraz, azaldutako guztiagatik, hau **ESKATZEN DUT**:*

Proiektuaren informazio-azterlana EZ onartzea, interes orokorreko ez deklaratzeko eta ingurumen-inpaktuaren adierazpen negatiboa egitea.

Bigarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako alegazioak aurkez ditzan Udalaren izenean eta ordezkartzan.

2.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:04an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- ALEGACIONES DENTRO DEL TRÁMITE DE INFORMACIÓN PÚBLICA DE LA SOLICITUD DE AUTORIZACIÓN ADMINISTRATIVA PREVIA (AAP) Y DECLARACIÓN DE IMPACTO AMBIENTAL (DIA) DEL PROYECTO PEol-852 QUE COMPRENDE EN PARQUE EÓLICO DE ITSARAZ, DE 60.4 MW

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Económico Sostenible y con el voto favorable de los 6 concejales presentes de EH BILDU y la abstención de los 4 concejales presentes de EAJ/PNV, el Pleno acuerda:

Primero: Ante el anuncio publicado en el BOE del 22 de mayo de 2023 de las Áreas Funcionales y Dependencias de Industria y Energía de las Subdelegaciones del Gobierno en Araba, Gipuzkoa y Bizkaia, por el que se somete a información pública la solicitud de autorización administrativa previa (AAP) y declaración de impacto ambiental (DIA) del proyecto PEol-852, que comprende el parque eólico Itsaraz, de 60.4 MW, realizar las siguientes alegaciones.

ALEGACIONES:

1.- *La central eólica proyectada tendría un grave impacto sobre la vida de las personas que habitan en las zonas donde se quieren construir las nuevas infraestructuras. Sería especialmente perjudicial en Aramaio, Leintz Gatzaga, Eskoriatza y Aretxabaleta y el conjunto de Debagoiena que vería su paisaje degradado. Además de los 8 molinos de 200 metros de altura que se pretenden instalar a poca distancia de los núcleos de Arriola, Arexola, Uribarri, Altzaga, Azkoaga, Zabola, Barajuen, Untzila, Suña, Marin, Zarimutz, Mazmela y Apetzaga, también produciría gran afección la línea de evacuación aérea de 15,34 km de alta tensión suspendida sobre enormes torres de acero y la subestación eléctrica Set Itsaraz en las proximidades de la ermita de San Adrian.*

Es importante recalcar el impacto acústico y el efecto Flicker (sombras en movimiento producidas por las aspas) extremadamente perjudiciales para la salud de la ciudadanía, aspectos que el informe medioambiental de la promotora no evalúa adecuadamente.

2.- *La pérdida de conectividad, fragmentación de hábitats y pérdida de biodiversidad es muy elevada. La zona en la que se pretende instalar la central eólica es un "Corredor Ecológico" entre las ZEC (Zona de Especial Protección) de Urkiola, Aizkorri-Aratz y Embalses de Zadorra. El parque tendrá graves repercusiones negativas en elementos clave de dichas ZEC.*

3.- *El informe de la promotora en el apartado "V.3.2.7 Efectos sobre la fauna" (páginas 390-1) admite que se producirá la muerte de ejemplares derivada de la colisión y electrocución de las aves con los cables de conducción y los aerogeneradores. Sin embargo, sin más cuantificación ni razonamiento se considera este impacto como "MODERADO". Esta valoración es manifiestamente deficiente si se tiene en cuenta que en la zona de instalación del parque habitan milanos reales, alimoches, buitres leonados, quebrantahuesos, águila pescadora, entre otros, todas ellas especies protegidas; además de numerosas especies de quiróptero (murciélagos).*

2023/07/20
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria

Además, toda la zona que rodea al proyectado parque eólico Itsaraz por todas sus vertientes es corredor de paso de las aves migrantes en las épocas de “pase y contrapase”. Este efecto barrera afectaría a cientos de miles de aves que atraviesan anualmente esta zona de Gipuzkoa y Araba, que se encuentra en una de las mejores vías de migración de aves a nivel europeo. También hay que tener en cuenta que en la zona afectada por el parque Itsaraz nidifican y residen durante la primavera y el verano diversas especies de aves.

4.- En el escenario nocturno, el balizamiento blanco e intermitente que tendrían los aerogeneradores crearía un impacto visual incluso mayor que el ocasionado durante el día; viéndose los niveles de contaminación lumínica muy afectados. Esta iluminación atraería insectos y por consiguiente el incremento de colisiones de aves nocturnas y quirópteros.

5.- El impacto sobre la flora sería importante, afectando a hábitats de interés catalogados Comunitarios y/o prioritarios: Directiva Europea 92-43-CEE relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres.

6.- El estudio de impacto medioambiental de la promotora no recoge las consecuencias paisajísticas PERMANENTES en el municipio de Eskoriatza. El aerogenerador situado en eskoriatza, se ubica aproximadamente a 1km en línea recta del barrio de Apotzaga. Esta distancia parece considerable hasta que se pone en relación con la altura de dicho elemento (altura del mástil del aerogenerador (115m) y altura a la punta de la pala (201m)). El impacto visual generado será enorme y la sensación real de tener encima del barrio el aerogenerador va a ser una realidad.

Conviene resaltar que el aerogenerador dispuesto en Eskoriatza tendrá su base a la cota aproximada de 572 sobre el nivel del mar. Y sobre esto se elevará 200m.

7.- Por mucho que Statkraft lo proclame, estas instalaciones no aportan ningún empleo a la gente local. Además, supondría el empobrecimiento del área rural y de los núcleos de población más pequeños, ya que se produce una devaluación de terrenos y edificios. La calidad de vida de los habitantes de los pueblos que se encuentran cerca de las centrales eólicas se verá gravemente afectada. Las instalaciones, tanto las torres como la línea de evacuación, supondrá la tala de numeroso árboles, que no se pondrán replantar, y afectará al uso de los terrenos colindantes.

8.- Además de la afección a propiedades privadas, produciría una privatización, como mínimo temporal, de montes y terrenos municipales en beneficio de la empresa Statkraft, propiedad del estado noruego, que ya ha sido condenada por la propia justicia noruega por la construcción del parque eólico de Fosen Vind y, sin embargo, sigue sin cumplir la sentencia de desmantelamiento y explotando dicho parque.

9.- La gran cantidad de aceite que necesitan los rotores de los aerogeneradores y sus frecuentes fugas acarrearían la contaminación del subsuelo y las aguas subterráneas.

10.- El informe de impacto ambiental de la promotora asegura el aprovechamiento de las actuales pistas y caminos para la construcción de la central, pero esto es técnicamente imposible por la imposibilidad del tránsito de vehículos pesados a través de la actual red de caminos dada la escarpada orografía del entorno.

La adecuación necesaria acarrearía el movimiento de toneladas de tierra y piedra provocando la compactación y erosión del terreno.

11.- Especialmente grave, por ser una instalación auxiliar, es la solución dada para el camino 13. Para hacer un camino de 360m hay que construir dos muros en paralelo con una separación de 42m y sobre cada muro se construye un talud de tierras de unos 12m de altura en vertical.

El relleno de tierras necesario para esta actuación es de unos 250.000,00 m³ de tierra. Lo que provocaría la compactación y erosión del terreno.

Esto supone una auténtica presa construida sobre un cordal montañoso. Todo ello para poder acceder a la ubicación del último aerogenerador.

La afección que desde todo punto de vista supone este muro no es justificable y debiera o bien renunciarse a la creación del aerogenerador dispuesto en el término municipal de Eskoriatza o modificar el trazado del vial.

En este sentido, a pesar de que no es de aplicación, al no estar todavía en vigor el PTS de Energías renovables, y no ser de aplicación de conformidad a la disposición transitoria de dicho documento, entendemos que el propio proyecto debiera de atender, por pura lógica, a las determinaciones y directrices de dicho documento.

En el mismo, La línea propuesta en esa ubicación no propone su prolongación hasta Eskoriatza.

Por todo lo expuesto, SOLICITA:

Que, NO apruebe el Estudio Informativo del proyecto, ni lo declare de interés general y emita una Declaración de Impacto Ambiental Negativa.

Segundo: Facultar al Sr. Alcalde para que interponga dichas alegaciones en nombre y representación del Ayuntamiento.

2.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se producen.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:04 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.